

NIRE LEHEN

ORRI-MARKATZAILE SOLIDARIOA



Save the Children



SARRERA-TESTUA

Ospatu Liburuaren Eguna
milaka neska-mutilekin.

Hala bazan, ez bazan...

milaka bizitza aldatu
ditugu gure eskolan.

Save the Children
erakundeak 120

herrialdetan baino
gehiagotan egiten du

lan. Neska-mutilen

bizitzak salbatzen

ditugu. Beren

eskubideen alde

egiten dugu. Beren

potentziala garatzen

laguntzen diegu. Zuen

lana ezagutu nahi dugu.

Bidali jardueren eta

orri-markatzaileen

argazkiak helbide

honetara: [diadellibro@](mailto:diadellibro@savethechildren.org)

savethechildren.org

Ez ahaztu irudien

baimena gehitzea, gure

webgunean eta sare

sozialetan partekatu

ahal izateko.

Zuzendaria:

Marisol Paniagua López

Laguntzaileak:

M^a Luisa Ortega del Val

María Cimadevilla

Silvia Lara

Juan Guilló

Azaleko argazkia:

Stuart Sia / Save the Children

Artea eta maketazioa:

Germán Gullón (VALBHY)

Argitaratzailea:

Save the Children España

Lege-gordailua:

M-6187-2017





2017KO LIBURUAREN EGUN SOLIDARIOA

Bizitzako lehen unetik dugu kalitatez eta giza berotasunez hazteko eskubidea. Horregatik, Save the Children erakundeak 0 eta 3 urtera arteko haurrei zuzendutako Liburuaren Egunaren inguruko ekimen solidarioak proposatzen dizkizue.

Helduok gauza onak eta ez hain onak transmititzen ditugu gure ingurunean. Helduek modelatzen dituzten esperientziak bizitzen dituzte jaiotzetik neska-mutilek. Ipuinei esker, haurrek gaitasunak garatzen dituzte jaiotzetik: gauzak ezagutzen dituzte, entzun egiten dute, besteek sentitzen dutena ezagutzen eta sentitzen hasten dira eta emozioei hitzak jartzen hasten zaizkie; ezinbestekoa gizakien arteko bizikidetzarako.

Ipuinek errealitatearekin konektatzera bideratutako heziketa ematen digute, indartu beharreko balioekin eta emozioekin. Bizi garen mundua hobetzen saiatzera motibatzen gaituzte ipuinek.

Gida didaktikoaren bidez erakutsi nahi da zer garrantzia duen ur garbia izateak haurrak bizirik irauteko, baliabide hori faltatzeak eragiten duen ahulezia eta zer lan egiten duen Save the Children erakundeak egoera horren ondorioak arintzeko.

Txostenak eta ariketek irakasleen lana osatzen dute eta errealitate desberdinak gerturatzen dizkiete elkartasuna, lankidetzak, errespetua eta erantzukizuna gisako balioetan egindako lanari laguntzeko.


Ura izatea oinarritzko Giza Eskubidea da, baina Afrikako milioika pertsonak ez dute bermatuta eskubide hori.

URA, BEHARREZKO BALIABIDEA

Lurraren hiru-laurden urez beteta dago. Ia gehiena gazia da, % 2,5 soilik da geza. Guk, bizitzeko eta garatzeko, ur geza behar dugu. Baina, gainera, ezaugarri jakin batzuk bete behar ditu: **likidoa izan behar du, garbia eta lortzeko erraza.**

Hori dela-eta, pertsonok uraren ziklo naturalean esku hartu dugu eta azpiegiturak eraiki ditugu naturan eskuragarri dagoen ura biltzeko eta erabili ahal izateko tratatzeko.

Baina toki guztietan ez da modu berean lortzen ura. Munduko txoko askotan, Afrikako herrialde askotan, esaterako, oso zaila da ur garbia eta edangarria aurkitzea. Toki horietan kontsumitzen duten uraren kalitatea ez da nahikoa eta horrek arazo oso larriak sortzen ditu herritarrengan eta, batez ere, egoera ahulean dauden hurrei eragiten die.



URA LORTZEA, GIZA ESKUBIDEA DA

Duela 60 urte baino gehiago, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak baieztatu zuen ur edangarria eta saneamendua izatea funtsezko giza eskubidea zela. Baina, gaur egun hitz hutsak dirudite, milioika pertsonok munduan ez baitute ur edangarririk eta oinarritzko saneamendua falta baitzaie.

Arazo nagusia ez da ur-eskasia, egoera ahulean dauden biztanleek eskura ez izatea baizik. Azpiegiturretan inbertsio-faltaren, gero eta biztanle gehiago izatearen eta egunero ur gehiago kontsumitzearen ondorioa da. Martxa honetan, hiru pertsonetatik bik ur eskasia izango dute 2025. urtean.

Arazoa hain da larria, non Nazio Batuek egun bat izendatu baitzuten ura izaki bizidun guztiontzat zein garrantzitsua den guztiok kontzientziaztea zuena helburu: **martxoaren 22a, Uraren Nazioarteko Eguna**. Egun hori gobernuek, GKEek, enpresek eta gizarte zibilak elkarlanean baliabide hori babesten parte hartzeko eta guztiok ur edangarriaren hornikuntza-arazoaren gainean hausnartzeko eguna da.

URA AFRIKAN


Ur-baliabideak oso sakabanatuta daude Afrikan. Zenbait herrialdek ur-ekarpena nahiko egonkorra badute ere, Afrikako Adarra gisako beste eremu batzuetan, oso urria da. Egoera horretaz gain, herrialde gehienek ez dute aldizkako lehorteei aurre egiteko baliabiderik eta ez dute baliabiderik ere, oro har, landa-eremuan eta oso sakabanatuta bizi diren biztanle orori ura banatzeko azpiegiturak garatzeko.

Azpiegitura-eskasiaren zuzeneko ondorio bat da lau afrikarretatik hiruk lurpeko ura erabiltzen dutela oinarritzko ur edangarria lortzeko iturri gisa eta ondorioz ura lortzea zaila izan ohi da. Bestalde, lurpeko uren kalitatea desberdina da: Saharaz azpiko herrialdeetan, artsenikoa eta fluoruroak izan ohi dituzte, eta gainera industria-hondakinak eta pestizidak edo ongarriak bezalako nekazaritza-hondakinak gehitzen baditugu, zailtasun bikoitza dugu: sarbide zail eta garestia eta ur kutsatua edo kontsumitzeko kalitate eskasekoa.


Zailtasun horiek arazoa enkistatzen eta pobrezia betikitzen laguntzen dute.



Hondakin-uren
kudeaketa eskasa.



Administrazio-kontrol
urriak lagundutako
kutsadura.



Kalitate gutxiko
lurpeko ura erabiltzea.



NOLA ERAGITEN DIE HAURREI UR EDANGARRIA EZ IZATEAK?

Urik ez izateak berehalako eta etorkizuneko ondorioak ditu haurrengan eta eragina du alor hauetan:

- **Osasuna:** egoera txarrean edandako urak eragindako diarrea da bost urtez azpiko haur-heriotzaren arrazoi nagusietako bat, desnutrizioarekin batera, zeina larritu egiten den horrelako ura edanda. Horrez gain, ur geldien osasungarritasun ezarekin lotutako gaixotasun infekziosoak daude, adibidez, malaria edo dengea.
- **Hezkuntza:** lehorten handieneko uneetan izan ohi den ur-faltak eskolak aldi baterako itxiarazten ditu eta neska-mutilek eskola uzten dute.
- **Generoa:** ur edangarri eta saneamendu faltak batez ere emakumeen eta nesken bizitzetara eragiten die, eurak baitira ur bila joateko ardura izan ohi dutenak. Biltzen den uraren % 71 neskek eta emakumeek biltzen dute. Asko hainbat kilometro ibiltzen dira ur bila joateko, batez beste lau ordu egunean, eta beraz eskola-absentismoaren arrazoi nagusietako bat da, batez ere nesken kasuan. **Neskek hezkuntzarako duten eskubidea galtzen dute**, pobrezia-egoeratik irteteko tresna onena.
- **Babesa:** amek distantzia handiak egin behar izaten dituztenez ur bila joateko, denbora horretan seme-alabak zaindu gabe geratzen dira, babesik gabe eta arriskuan.

Ura bizitzaren eta garbiketaren sinbolo da kultura askotan, , baina gaixotasun eta heriotza bihurtzen da populazioaren zati handi batentzat.



SAVE THE CHILDREN ERAKUNDEAREN ERANTZUNA ETIOPIAN

5 milioi neska-mutil inguru daude gosete-arriskuan, Etiopiako elikagai-krisi okerrenetako baten ondorioz. Elikagai-krisi hori normalean berde eta produktibo diren eskualdeetan izandako lehortek eragin du.

350.000 neska-mutilek desnutrizio larria jasaten dute; gaixotasun hori tratatzen ez bada hazkuntzan atzerapenak eragin ditzake, hala fisikoki nola mentalki, eta kasurik okerrenetan, heriotza eragin dezake.

Save the Children **erakundea eragindako barrutien % 70tan baino gehiagotan ari da lanean.** Dagoeneko bertan lanean aritzeak toki ahulenak identifikatzen eta horietan ekiten uzten digu eta komunitateei haurrak babes ditzaten laguntzen uzten digu.

Diru-sarrerak galdu dituzten **familiak behar dituzten elikagaiak, ura, sendagaiak eta babesa hornitzeaz** arduratzen gara. **Ura eta saneamendua lortzeko baldintzak hobetzea (ur-bidoiak eta xaboia emanez, komunak eraikiz edo heziz) bezalako gauza soil batekin, bizitza asko salbatzen ditugu.** Uholdeak saihesteko **ur-bazterrak eraikitzen** eta **ur-putzuak zaharberritzen** ditugu eta abereak osasuntsu mantentzen lagunduko duten **elikadura banatzen** dugu.

Gainera, komunitateko osasun-langileak hezten ari gara, desnutrizioa tratatu dezaten eta egonkortze-zentroetara bidal ditzaten gehien erasandako haurrak.

Eskolak zaharberritzen ditugu eta, bertan, ura eta saneamendua dituztela ziurtatzen dugu; horrela, neska-mutilak bertan geratzen dira eta heziketa-materiala ere jasotzen dute.

Familiak beren etxeak utzi behar izanez gero, aterpe-kitak ditugu. Guztia galdu duten eta bizitzeko bitarteko nahikorik ez duten familiak babesten saiatzen gara “dirua lanaren truke” programari esker.

Ume guztiek dute bizirik irauteko, heziketa bat jasotzeko eta babestuta egoteko eskubidea. Ur edangarria badute, beren etorkizuna bermatuta dago. **Eskerrik asko beren istorioak eta bizitzak aldatzen laguntzeagatik.**



PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Jarduerak parte-hartzaileak, familiak, eskola eta ingurunea garatzen lagundu ote duen baloratuko du irakasleak. Garrantzitsua da esperientzia Save the Children erakundera bidaltzea, argazkien, mezuen edo artikuluen bidez.

0-3 aldiko profesionalek eskola bakoitzeko errealitatea planteatutako iradokizun didaktikoetara egokitzea da jarduera-proposamenaren alderdi interesgarriena.

Helburuak

- Munduaren zati izateko ilusioa eta emozioa esnatzea 0 eta 3 urtera arteko haurrei zuzendutako ipuinen, abestien eta leloen bidez.
- Haurren eskubideak defendatzeko esperientzien alde egitea eta uraren balioa ezagutzen hastea.

Gaitasunak:

Arreta; begi-kontaktua; entzumena; keinu-, aho- eta gorputz-adierazpena; ulermena; entzumenezko eta ikusizko memoria; hiztegia; ahoskera; mugimendu- eta zentzumen-gaitasunak eta komunikazioa.



Orientazio metodologikoak:

- Haurtxoek zentzumen guztiak erabiltzen dituzte uneoro, emozio eta sentsazio atseginak sentitu behar dituzte bizitza ezagutzeko.
- Familiak eta hezitzaileek haurrak tratatzeko moduaren bidez transmititzen dizkiegu sentimenduak, eta haurren gaitasun hori imitatu egiten dute lehen urteetatik.
- Ekintza solidarioek “neskak eta mutilak berdinak” direla erakusten digute eta errespetua eta maitasuna behar dituztela, ezinbestekoa izanik eguneroko eta mundu-mailako bizikidetzarako.

Jardueren bilakaera:

“Ura izateko eskubidea guztiontzat” gaia (proiektua, astea, egun jakin bat...) lantzen pasatutako denboran zera proposatzen dizugu:

- “Urari buruzko ipuinen unea”: familiek urarekin lotutako ipuinak eramango dituzte, lehen harremana hartzeko, hurbiltzeko, entzuteko eta ikasgeletan kontatzeko (ipuinak, besteak beste, hezitzaileek eta familiek konta ditzakete...).
- “Guztiok ura izateko eskubideari buruzko guno-murala”: urak munduan duen garrantziari buruzko irudiak emango dituzte familiek.
- “Munduan ura izateko eskubidearen aldeko orri-markatzaileen tailerra”: aldezturik hezitzaileek “Ura, eskubide bat” ezarritik osatu dituzten orri-markatzaileak apainduko dituzte haurrek... eta beren babesa erakutsiko dute: hatz-marka urdinekin, eranskailuekin...

Une batez gauza garrantzitsu guztiak kokatzen baditugu: haurtzaroa, gure seme-alabak, osasuna, elikadura.... uraren tokian ikusten dugu funtsezkoa dela lotura osasuntsuak, errespetuzko harremanak, tratu ona, arauak eta muga argiak eta ziurrak ezartzea, pertsona guztien eskubideak eta haurren eskubide zehatzak bermatzeko.



“URAREN SOINUA ENTZUNGO DUGU”

0-1 gela



30 min.

- Parte-hartzaileek uraren soinua duen musika entzungo dute gelan.
- Euri-makilak erabiliko ditugu egiten duen soinua maneiatzeko eta entzuteko: pirritan ibiliz, bultzatuz, horizontalki eta bertikalki...
- Hezitzaileak ipuinak kontatu, abestu eta leloak kontatuko ditu haurtxoek begiratzea, entzutea edo beren begirada zuzentzea errazteko, gustura egoteko eta soinuen eta hitzen mundura hurbiltzeko eta ahotsak ezagutzen hasteko. Keinuekin, esku-jokoekin eta abarrek lagun daiteke.

Ni euri tanta banintz
egin nuke
zure sudurrean txirrist,
lurrera erortzean salto
eta hodeietara joango nintzateke berriz.

JARDUERARAKO IRADOKIZUNAK

jarduera egiten pasatutako denbora alda daiteke eta eskolako eguneroko, hileroko eta urteko programara egokitu daiteke.

Jarduera-proposamena errepika daiteke «ura izateko eskubidea guztiontzat» gaia lantzen ari den bitartean edo egoki irizten zaionean.

Familiek euri-makilak eginez edo urari buruzko abestiekin eta leloekin.

Beharrezko materialak

- Ur-soinua duen musika
- Euri-makilak
- Ipuinak, abestiak eta urari buruzko leloak



“URA GUZTIONTZAT”

1-2 gela



40 min.

Eskolako egunerokoan urarekin harremana izan ohi da. Urarekin lotutako eguneroko uneen kontzientzia hartuko dugu, urarekin harremana dugun une bakoitza garrantzitsu egiten eta une horiek zerbait berezi egiten: sentsazio oneko uneak.

- Basokada ur edateko eta egarria apaltzeko une hori: musika lasaia jarri, ur-edalontzi bat, denbora egokia, gune eroso eta lasai egotea. Amaieran, eskua emango diogu elkarri edo besarkada bat eta «ura guztiontzat» esango dugu.
- Jan aurretik eskuak garbitzeko une hori: musika jarri, toki egokia aurkitu, bazinak, xaboiak eta eskuoihalak jarrita eta abestiak eta leloak abestu une alai bat bizitzeko. Amaieran, eskua emango diogu elkarri edo besarkada bat eta «ura guztiontzat» esango dugu.

Plisti-plasta, plisti-plaust
Plisti-plasta, plisti-plaust
mela-mela, eta blai-blai
Plisti-plasta, plisti-plaust
mela-mela, eta blai-blai
Zaparrada, zipristin
harri koskor eta buztin.
Plisti-plasta, plisti-plaust
mela-mela eta blai-blai.

Bota berri eta guzti
irten naiz etxetik,
gauez egin du eta
euria gogotik.

Putzutan ez sartzeko
nire amak esan dit
Berak esandakoa
egin behar beti.

JARDUERARAKO IRADOKIZUNAK

Jarduera egiteko denbora alda daiteke. Eskolaren eguneroko, hileroko eta urteko programaren eta talde bakoitzaren ezaugarri jakinen arabera errepikatu eta moldatu daiteke.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Ur-edalontzia
- Musika
- Gunea egokitzea
- Bazina
- Eskuoihalak
- Xaboiak
- Abestiak...



“URA GARA”

2-3 gela



40 min.

- Hezitzaileak ur-soinua duen musika lasaia jarriko du jardueraren hasieran.
- Parte-hartzaileak apaindutako kaxa baten inguruan jarriko ditu. Ez dakite zer dagoen barruan, oraindik ezin dute ukitu... eta irekidura bat du eskua sartzeko.
- Hezitzaileak ur bihurtzeko erritua azaltzen du, eta parte-hartzaile bakoitzak erritu hori egingo du: «plisti, plasta», «plisti-plaust», eskua sartuko du, ura ukituko du... eta esango du: «ura naiz», «ur bihurtu naiz». Guztiek errepikatuko duten mugimendu bat eta bat-bateko soinu bat egingo du bakoitzak.
- Guztiak ur bihurtu direnean, ur izatera jolastuko gara: lasai kulunkatzen den ura gara, ur-tantak, itsasoko olatuak, ur-botila, txorrotako tanta, ur-edalontzia, zipriztintzen duen ura. Garbitzeko ura gara, edateko ura, garbi egoteko ura, ibaiko ur zikina, burbuilak...
- Jarduera amaitzeko, batera abestuko dute eta mugitzen diren bitartean hitz-joko hau esango dute: Gorputzeko zati desberdinekin errepika dezakete: oinak, eskuak...

Zein polita den ura!
A zer jolasteko gogo!
Plisti-plasta oinekin (eskuekin, hatzekin...)
Eta guztia zipriztintzen
Plisti-plasta
Plisti-plaust



JARDUERARAKO IRADOKIZUNAK

Jarduera eta egiteko denbora talde eta bere beharretara egoki daitezke.
Familiek urari buruzko leloen, esaldien eta abestien tailer batean har dezakete parte.

BEHARREZKO MATERIALAK

Musika eta kaxa bat ur-ontzi batekin.

INFORMAZIO BITXIA... FAMILIENTZAT

Familientzat



40 min.

Zein harreman dut urarekin?, lotura osasuntsuak ditut urarekin?

Ura ongi tratatzeko kultura proposatzen dizugu. Horretarako


- Ezagutzen dugu urak bizitzan duen garrantzia.
- Errespetuzko harremana dugu urarekin.
- Badakigu ura ingurunearen zati dela.
- Baloratzen dugu ura eta zainduz erakusten dut.
- Arauak ditu ura zaintzeko.
- Mugak jartzen ditut ura babesteko.
- Kontzientzia-erreferente naiz, ohitura osasuntsuak eta positiboak ditut urarekin. Ala zalantzatia naiz eta axolagabea naiz urarekin?

Aurrik ez izateak garapenari eragiten dio. Arauak eta mugak izatea eskubide bat da bizitza gidatzeko, eta ura bizitzako elementu garrantzitsuetako bat da

JARDUERARAKO IRADOKIZUNAK

Informazioari buruzko tailer bat egin dezakegu edo formatu berriak aurki ditzakegu familien ezagutzarako eta hausnarketarako.





Ureztatu Etiopia gisako herrialdeetako
milaka neska-mutilen bizitza.

Jardueran bildutako dirua sar
dezakezuen kontu korrontea:
Banco Santander
ES24 0049 1837 5829 1024 8925



Gogoratu kontzeptuan ikastetxearen izena adieraztea.

Eskerrik asko!

Haurrei Afrikako herrialde txirotuetako neska-mutilen egoera gerturatzeko dien hezkuntza-proposamena da Solidaritatearen aldeko nire lehen orri-markatzaileak, Save the Children erakundeak abian dituen haurrak bizirik irauteko proiektuetarako funtsak lortzeko eta haurren eskubideak ezagutzeko, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

Laguntzaileak:



BIZIRAUTEA IKASTEA BABESTUTA EGOTEA



Save the Children